

KLIMA ALDAKETAREN ESZEPTIKO BAT HAUTATU DUEN AUSTRALIAK ELKARTASUNERA ITZULI NAHI DU

Klima nahasmendu giro bortitz batean lortu zuen lehen ministroaren aulkia Scott Morrisonek, argiki klima aldaketa gezurtatzen aritutakoak, iazko maiatzaren 19an. Kolapsologiatik –hau da, hondamendiaren ikerketaren esparrutik– begiratu diogu Australiari, paradoxa nagusi hori ulertzeko xedez. Bozketak pasa eta hilabete gutxira piztu ziren berriz ere ezin kontrolatuzko suteak. Ke artean, klima aldaketaren kontrako neurriak exijitzen dabilta hamar milaka australiar.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Scott Morrison liberal-kontserbatzailerak berak aitortu zuen, Australiak lehen ministroaren aulkia irabazi zuela jakin orduko: “Beti sinetsi izan dut mirakuluetan”. Ezustekoa gertatu zen, Bill Shorten laborista –ulertu trantsizio ekologikoaren aldekoa, klima nahasmenduaren gaia lehen lerroan egon zelako kanpaina zehar– aurreikusia zelako irabazle. Klima-eszeptiko bati, hau da, klima aldaketa gezurtatzen dabilen bati eman zitzaion kargua iazko maiatzaren 19 hartan, krisi klimatikoa bete-betea pairatzen duen herri hartan. Hauteskundearen aitzineko hilabeteetan ere intentsitate handiko uholdeak pairatu behar izan zituzten australiarrek, baita sekulan ikusitako garai beroenak ere, itzaletan 50 graduko tenperaturari aurre eginez.

Klima aldaketaren ondorio latz eta bortitzak pairatzen dituenak nola bozkatu dezake etengabea klima aldaketa ukatzen dabilen klima-eszeptiko baten alde? Okerrago, nolaz ez dio botoa emanen berandu baino lehen krisi ekologikotik ateratzeko neurriak proposatzen dituen hautagaiari? Hori ulertzeko bidean, Australiari kolapsologiatik begiratzea interesgarria da, –baldin eta apokalipsi giroari *interesgarria* adjektiboa jartzen ahal bazaio...–. Kolapsologia edo hondamendiaren ikerketa, Pablo Servigne eta Raphael Stevens ikerlari independenteek 2015ean argitaratu “Nola dena lehertu daitekeen. Kolapsologiari buruzko esku-liburu txikia, gaur eguneko belaunaldiei

zuzendutakoa” (*Comment tout peut s'effondrer. Petit manuel de collapsologie à l'usage des générations présentes*) liburua bidez zabalduriko nozioa. Kolapsologia XXI. mendeko hitza izanen dela erratea ez da sobera arriskatzea. Argiki dio Servignek fatalismoa ez dela bidea: “Ez dugu irakurketa pesimista, zerumuga hestean dugu arrisku handiena, dena galdurik daukagula pentsatzea izugarri toxikoa litzateke. Beti, baita gerra garaian ere, dago itxaropen-izpi bat”.

ELKARTASUNA VS INDIVIDUALISMOA

Elkar-laguntzean eta bizidunak bere baitan daukan elkartasunean dauka esperantza: “Ingurunea geroz eta kontra-koagoa eta zailagoa izan, orduan geroz eta gehiago elkarlaguntzan daude organismoak. Gure jendarte super lehiakorretan iruditzen zaigu eskasia bat izanez gero elkar joka hasiko garela. Alde bate-tik egia da, baina hori garaturiko kultura indibidualistak eraginda dugu. Jendarte industrial oso aberatsak izaki eta oparotasunean bizi izaki, ukan dezakegu ondokoari “zure laguntzarik ez dut behar” errateko luxua. Baina berez, giro neketu batean, leherturiko giro batean, elkar lagunduko gara, –bizi ala hileko kontua delako–. Ideia horri ondokoa gehitzen dio: ez direla baitezpada katastrofeak zailenak izango, baizik eta gure kultura indibidualistarekin katastrofe horiei aurre egitea. Suteen artetik ideia hori baieztatzen dabilta australiarrak: gehienak

bolontarioak diren suhiltzaileak, klima aldaketaren aurkako manifestazioetan batu milaka eta milaka lagunak eta une oro, auzoen artean –bizidun humano ala abere– bideratu elkar zaintza eta babesean. Baina, zazpi hilabete lehenago oparotasunaren sentimentuak bideraturik, klima-eszeptiko baten alde bozkatu zuten orain elkartasuna bideratzen dabilzan milaka eta milaka hautesleek.

Ikatx mehategietako lobbyek –lehen lerroan Clive Palmer oligarka– eta *mainstream* komunikabideek horretara bideratu zituzten hautesleak. Azken bi horiek gabe, ez da errana ezuste hau gertatuko zenik. Palmerrek sortu zuen 2013an UAP Australiako Alderdi Bateratua eta komunikabideetan leku handia eduki zuen kanpaina guztian zehar, komunikaziorako aurrekontua bi alderdi nagusien aurrekontuaren batuketa baino handiagoa zuela. Laboralistak zikintzen aritu zen gehienbat eta hauteskundeak bukatuak, Australiako ikatx mehategi handiena bideratuko zuela jakinarazi zuen. Munduko ikatx esportazioen herena Australiak du bideratzen, 2016an bere energiaren %73 ikatxetik ekoizitakoa zuen eta karbono dioxidoen igortzea %46,7 emendatu zaio 1990 urteaz geroztik.

88 urteko Rupert Murdoch miliardunak bideraturik, hondamendi klimatikoa ia gai tabua dute eta aipatzerakoan gezurtatzeko izan ohi da. Komunikabideen arloko *News corporation*-en akziodun



AUSTRALIAKO SUTEAK

IRAILAZ GEROZTIK,
8 MILIOI HEKTAREA
ERRE DIRA. KLIMA
ALDAKETAREN ONDORIO
KONTROLAEZINA
PAIRATZEN DABILTZA.

nagusia izanez eta eskura dituen beste filialei esker, Australiako komunikabideen %90 kontrolatzen du. Horrela bakarrik daiteke klima-eszeptiko bat boterera heldu, sute eta uholdeek kontrolatzen duten testuinguruan.

KATASTROFEAK EKAR DEZAKEEN ALDAKETA

Ikustekoa egun hauetan dagoen elkartasunak zer ekarriko duen bihar. Interes handiarekin begiratzen dio Servignek: "Iritzitzi publikoan aldaketa azkar, masibo eta beharbada ezin itzulizko bat badela dirudi, normalitatearen eta 'politika berak mantenduz lortuko dugu' irudimena eta 'dena dela, katastrofeak ez dira bihar goizeko, denbora dago' ustearen erortzeak dauzkagu". Suteen alde on bakarra, baina beharrezkoa. "Iraultza" bat

espero du australiarren partetik, hau da ekonomia, politika zein ekologia mailan "aldaketa erradikalak". "Ez bada horrela gertatzen, garai hori gainbehera izendatzeko duda gutxiago ukanen dute etorkizuneko historialariek".

Elkartasunaren giroa ezinbestekoa dauka Pierre Gilbertek ere *Le vent se lève-n* idatzitako "Paradoxa australiarra: infernu klimatikoa eta buruzagi klima-eszeptikoak" (*Le paradoxe australien : enfer climatique et dirigeant climatoseptique*) analisisian. Gainbehera giroak "klase apalago batera jeisteko beldurra areagotu" eta "ukapen mekanismoak azkartu" egiten dituela dio, batez ere jendarte indibidualizatueta eta Estatu sozialik gabekoetan. Hots, Australia bezalako herrietan. Ideia bera agertzen da Thomas Frankek 2008an publikatu "Zer-

gatik pobreek eskuin bozkatzten dute: kontserbadoreek AEBen bihotza nola irabazi duten" (*Pourquoi les pauvres votent à droite: comment les conservateurs ont gagné le coeur des Etats-Unis*). Hori dela eta, ondoko konklusioarekin bukatzen du: "Klimaren erronka altxatzeko bidean mentalki prest izateko, herri batek ezinbestekoak ditu elkartasun mekanismoak eskura ukatea eta gorabeherak sortu beldurraz emantzipatua izatea". Gaurtik gurera ekarri beharko genituzke Australiako irakaspenak, australiarren ozono geruza bera dugulako euskaldunok ere. Gainbeherak ez duelako mugarik. Klimaren gaiak ditu geroz eta gehiago hautagaien arteko aldeak argituko. Hautua egiterakoan gogoan izan beharko ditugu kolapsologian dihardutenen irakaspenak. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com